



Baratze ekologikoa

Baratze ekologikoa ekosistema zaintzen eta inguruneko biodibertsitatea hobetzen laguntzen du. Naturan, giza jarduera jasangarria barne hartzen duen ekoizpen modua da, produktu, pestizida eta ongarri kimikoei uko egiten diena.

Landare ezberdinen jatorria eta natura ere kontutan izaten da, ez daitezela transgenikoak izan ezta hazi hibridoak ere.

Baratze ekologikoa bertako inguruneko kultur egituraren murgilduta dago eta bertako paisaiaren partaide da. Metereologiaren, toki baten orografiaren baita bertako jendearen sinismenen eta ohituren arabera ere eratzen da.

Euskal Herriari dagokionez, Baserria da natur eta kulturaren arteko lotura adierazten duena, gure "kultur paisaia" sortuz.



Baratzea maiatzean

Piskanaka piskanaka ilar uzta jasotzeari ekin beharko diogu lehenik, ondoren hurrengo landaketak egiteko lekua izan dezagun.

Babarruna (*phaesolus vulgaris*) lekalea erein dezakegu, *baba gorria* edo *indiaba/indoaba* bezala ezagutzen da, XVI. mendean ekarri bait zuten Ameriketatik.

Klima epela ederki datorkio, eta eguzkia ere gustatzen zaio, batez ere zurtoinetan, eta hotza dagoen tokietan ez da behar bezala haziko. Ez zaio komeni ordea, lur idorra, baina gurea bezalako lur buztintsuetan aurrez karea zabaltzea ez da gaizki etorriko, aurtengo urte honetan batez ere.

Hazia ereiteko garaian, errenkada batetik bestera 70 zm uztea komeni da, baldin eta artorik jarri behar ez badugu, izan ere kasu horretan makila, parda edo sarea

jarri beharko diogu eta. Lurrean zuloa egingo dugu eta zulo bakoitzean 6 bat ale jarri. Zulotik zuloa 50z m-ko tartea utzi. Tarteka lurra arrotu, behin landarea hazi denean ura hobeto mugitzeko eta sustraietara bero gehiago iristeko.



Ingurunea

Loraldiarekin hasita, zenbait fruta arbola loraldi bete betean daude eta beste batzuk berriz indartzen. Gerezioondoak esaterako, gure inguruetan loratzen diren lehenetarikoak dira, eta Igartubeitin ere halaxe gertatu da. Gainera, laister emango dituzte gerezi aleak, amitsuak eta gozo gozoak.

Sagarrondoek ere loraldia hasi dute. Maiatza amaieratik aurrera, lehen sagarrak agertzen direnean bakantzeko lanak egitea gomendatzen da. Hau da, sagar ale txikienak kentzea, hartara sagarrondoak datorren uzta-aldirako indarra gordeko du. Beraz, hasi gaitzen sagarrondoak mimatzen. Eta ahaztu gabe, sagardoa botilaratu ez baduzue, oraintxe duzue azken txanpa, berandu ez bada... Ilbeheran egiten baduzue hobe, sagardoa lasaiago egoten da, bestela negarrez hasiko baita... Igartubeitin jada egin dugu.

Oraintxe izaten da palmondoa landatzeko garaia, argi ordu gehiago dagoelako eta eguzkiak lurra berotzen duelako. Hasierako 3-4 urteetan, bere sustraiak lurrera ondo errotu daitezela hesola batzuekin lagunduko dugu eta ongarria botako diogu ondo haz dadin. Baina, nondik dator baserriaren eta palmondoaren arteko lotura? Kasu gehienetan, ez beti, seme zaharrenak, "maiorazgoak" jasotzen zuen baserria. Beste anai arrebek baserria utzi behar izaten zuten, batzuk Ameriketara artzain joaten ziren. Bertako egonaldian aberastasun ugari biltzen zituzten eta itzultzerakoan, aberastasunaz gain, palmondoak ere ekartzen zituzten, beraien jaiotetxeetan edota eraikitako "indianoaren etxean" jartzeko, atzerrian izandako osparen adierazle bezala.





Baratzearen eta ingurunearen zaintza Jakoba Errekondorekin kolaborazioan:

- Landaketak egin aurretik lurra prestatu.
- Hazitegiko landare-barazkiak baratzean landatzen hasteko garaia
- Landareak babesetik atera eguzkitara.
- Loreontzietan ditugun landareak ongarritu.
- Landare usaindunak landatu edo erein.
- Udaran loretuko diren erraboilak eta landareak erein: gladioloa, kana, begonia...
- Landatu gabeko lurrak simaurrez estali, beldurrik gabe edota karetu.
- Belazeak eta soroak ez badituzu ongarritu orain egin.
- Sutako hautsa, kare hautsa edo hondarra gehitu lurrari, harrotzeko. Aurretik ongarrria bota badiogu utzi pare bat aste gutxienez eta gero zabaldu karea.
- Orbel garaia amaitzear da. Bildu konposta egiteko, azpitarako...
- Fruta arbolak zaindu: bakanketak egin eta behar bada baita tratamenduak ere.



**ONGI ETORRI IGARTUBEITIKO
BARATZE EKOLOGIKORA**